



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko martxoaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 7an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deliua izan-eta, legeak behar izan duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak :** CASIRIAN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

**Barkatuak zirenak :** AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton, JORAJURIA Ramuntxo.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da :** DACHAGUER Peio

**Deialdiaren eguna :** 2023ko martxoaren 3a

**Afikatze eguna :** 2023ko martxoaren 3a

### 10. ERABAKIA: AUTOKIDETZA GUNE PROIEKTUAREN FINANTZAMENDU PLANAREN ONARPENA

7.10 nomenklatura

Auzapezak Herri Biltzarkideei 918 departamenduko errepidean autokidetza gune baten berrantolatze proiektua oroitara zi.

Auzapezak adierazi du lanentzako aurreikusitako gastua 93 980.78 eurokoa dela, zergaz kanpo.

Honako finantzamendu plana proposatu du:

- DETR / DSIL (%70) dirulaguntza: 65 786.54 euro
- Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua (%10): 9 398.07 euro
- Autofinantzamendua (%20): 18 796.15 euro

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari, DSIL eta DETR programetan, baita beste erakunde diruztatzalileei ere.

Herri Biltzarrek, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU, aurkeztu zaion autokidetza gunearen berrantolatze proiektua,**
- **ONARTU DU, aurreikusitako lanentzako 93 980.78 euroko gastua, zergaz kanpo,**
- **ONARTU DU, aurkeztu den finantzamendu plana,**

- Dirulaguntzak ESKATUKO DITU, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluan DSIL 2023 eta DETR 2023 programetan, baita beste erakunde diruztatzalileei ere.

- **AURREIKUSIKO DITU, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,**

- **BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartze eta agiri oro izenpetzeko.**

Biltzarkideen kopurua: 15

Presente diren herri biltzarkideak: 11

Bozka kopurua: 11

ALDE: 11

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean deliberaturik, Presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren balioa.

ORTZAIZEN, 2023ko martxoaren 13an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/03/14an publikatu edo notifikatu ondoren,  
Eta Prefeturan pausatu ondoren 2023/03/14an.